

XX. Barne Jardunaldiak

Bilbon, egoitzan, 2017ko martxoaren 30ean eta 31n.

Batzar-agiria

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, euskaltzainburuordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Salaberri, Patxi,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Galé, Patxi,
Manterola, Julen,
Martínez de Madina, Elena,
Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Rekalde, Paskual,

Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Miren Azkarate (30ean), Jose Irazu “B. Atxaga” (30ean eta 31n), Andoni Sagarna (31n), Joan Mari Torrealdai (30ean eta 31n) eta Mikel Zalbide (30ean).

XX. Barne Jardunaldiak 2017ko martxoaren 30ean eta 31n, ostegunean eta ostiralean, egin dira Bilbon, egoitzan. Martxoaren 30eko saioa 10:00etan hasi eta arratsaldeko 18:30ean amaitu da. 31ko saioa, berriz, 10:00etan hasi eta 12:45 direnean amaitu da.

A. Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoan zerrenda eta ahalak irakurri ditu. Quoruma badela egiaztatu ondoren, XX. Barne Jardunaldiei hasiera eman zaie

A. Urrutia euskaltzainburuak, Piarres Xarriton euskaltzain emeritu zendu berriaren heriotza dela eta, familiari eta hurbilekoei doluminak adieraztea proposatu du. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran.

Eguneko aztergaiak jorratu aurretik, gaur eta bihar paper euskarrian aurkezten diren idatziak euskarri digitalean eskuratuko zaizkie hala eskatzen duten euskaltzainei. Idazkaritzak datorren astelehenean, apirilaren 3an, goizean zehar igorriko ditu dokumentuak. Era berean, aurkeztutako txostenei oharrak egiteko aldia 2017ko maiatzaren 2ra arte irekitzea erabaki da Osoko bilkuran.

Ondoren, XX. Barne Jardunaldien aztergaiak jorratu dira.

A. Urrutia euskaltzainburuak Zuzendaritzak martxoan prestatu eta onarturiko “2017-2021 aldirako ikuspegia eta helburu orokorrak” izenburua daraman txostena aurkeztu du. Dokumentu honetan jasotzen dira 2013-2016 aldiko balantze orokorra, Euskaltzaindiaren egoerari buruzko hausnarketa, 2017-2021 aldirako Plan Estrategiko berriaren 6 ardatzak eta habe horiek garatzeko neurriak.

Ondoren, Zuzendaritzak martxoan onarturiko “2017-2021. Iparraldeko langaiak: proposamena” txostena aurkezteko, hitza X. Videgain buruordeak hartu du. Txostenean lantzen dira Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herrian azken hilabeteetan egin duenaren berri laburra, funtzionamenduari buruz zenbait hausnarketa eta proposamen, bai eta bestelako egiturekiko harremanak.

Segidan, “Euskaltzaindiaren mendeurrena” txostena aurkezteko, hitza A. Urrutia euskaltzainburuak hartu du. Zuzendaritzak prestatu eta onarturiko idatzi honetan honako hauek jasotzen dira: mendeurrenaren abiaburuak, Euskaltzaindiaren egitekoak (sortu eta mende bat geroago), ospakizunetan kontuan hartuko diren 6 lerro akademikoak, Euskaltzaindiaren ibilbidean oso esanguratsuak izan diren tokiak -ekitaldiak antolatzeko orduan erreferentziatzat hartuko direnak-, ospakizunen antolakuntzari buruzko oharrak, 2018-2019 aldirako egutegia eta mendeurrena antolatzeko Batzorde suntsikor bat eratzeko oinarriak.

Lehenbiziko ataleko txostenak aurkeztu ondoren, galderetarako eta iritzietarako tartea ireki da.

A. Arkotxak, mendeurrenak kontuan hartuko dituen tokiei buruz, Donibane Lohizune kontuan hartzea proposatu du, herri horrek Euskaltzaindiaren ibilbidean toki aipagarria izan baitu.

X. Videgainek, bere aldetik, ospakizunak eta batzordeetako, lantaldeetako eta egitasmoetako jardunak lotzeko ahalegin berezia egin beharko litzatekeela aditzera eman du. Era berean, mendeurrenaren kariatara, Euskaltzaindiaren eguneroko jardunean parte hartzen ez duten euskaltzain osoen parte hartzea ahalbidetzeko ahalegina egin dadin eskatu du.

P. Goenagak, ekarpenak egin ahal izateko, txosten garatuagoa aurkeztu behar zela nabarmendu du.

P. Zabaletak Euskaltzaindiaren mendeurrena, 1968ko Arantzazuko batzarra eta duela berrogei urte Euskaltzaindiak argitara emaniko *Euskararen Liburu Zuria* aipatu ditu (argitalpen hau eguneratu eta berrargitaratu beharraz aritu da). Aurkeztu dena gehienbat barrura begirakoa dela, eta nazioarteko bilkuraren bat egitea ez ote den komeni esan du. Ipar Euskal Herriko eta Arabako ordezkarienez ere aritu da, ikusgarritasuna eta zerbitzu izaera indartzeko, ordezkari horien kokagunea Euskaltzaindiak berrikusi beharko lukeela azpimarratu du. Amaitzeko, euskararen egoerari eta estatusari buruz gogoeta egiteko unea izan litekeela esan du, bereziki Frantziako eta Espainiako estatuak euskarari ematen dioten trataeraz, bai eta nazioartean euskarak hartu beharreko tokiaz -diaspora aipatu du, duen hedaduragatik eta garrantziagatik-.

M. L. Oñederra bat etorri da P. Goenagak eta P. Zabaletak aipatu dutenekin. Halaber, intraneten kontua berriz aipatu du, hainbat bider gai hori ekarri duela, euskaltzaintzat lagungarri litzatekeela eta eginkizun dagoela azpimarratuz. 2017-2021 aldiko helburuen artean euskaltzain urgazleen parte hartzea indartzea jasotzen denez gero, lehenengo, euskaltzain osoen parte hartzea zergatik den horren urria gogoeta-gai izan beharko litzatekeela nabarmendu du. Zalantza agertu du ahalak ematearekin euskaltzain osoen erantzukizuna ez ote den arintzen. Amaitzeko, Osoko bilkuretako aztergaien artean, galdera-erreguen puntua gehitu dadin proposatu du.

A. Arejitak, P. Zabaletak proposatutako hariari tira eginez, *Liburu zuriri* segida emateko, argitalpen berezia ateratzea ideia ona izan daitekeela esan du. Nazioarteko bilkura bat antolatzeari ondo deritzo, baina lehenetasuna emanaz Euskaltzaindiak euskal lurraldeetako gizartearekin, hiztunekin, elkarte zein erakundeekin duen lankidetzaren areagotzeari. Orain arte egindakoa eta eginkizun dagoena gogoeta-gai izan behar duela eta, mendeurrenaren ondoren aurrera begirako jarraibideak finkatzeko baliatu beharko litzatekeela aditzera eman du. Estandarizazioa izan du hizpide, bai eta idatzizko tradizioa kontuan hartzea ere. Arantzazu, Euskaltzaindiaren 1968ko bilkuraz gain, euskararen ibilbidean ere, garrantzi handikoa izan dela azpimarratu du, eta, beraz, hori ere kontuan hartzea komeni dela iradoki du.

Euskaltzainburuak Donibane Lohizunen zerbait antolatzea mendeurrenerako eratzen den batzordeak azter dezan proposatu du; XX. Barne Jardunaldien hasieran nabarmendu bezala, atal honetan banatu diren txostenak euskarri digitaletan

bidaliko direla gogorarazi du; *Liburu zuria* eguneratzeko eginiko proposamena ere ondo ikusten du, horren gauzatzea Mendeurrenerako eratzen den Lantalde suntsikorren esku lagaz; halaber, barrura zein kanpora begira oihartzuna izateak daukan garrantzia azpimarratu du, bereziki ondorengo urteei begira; intranetaren gaiak, bilera-agiriak ez ezik bestelako dokumentuak ere eskuratu ahal izateko, Zuzendaritza lanean dagoela eta laster abian egotea espero duela jakinarazi du; euskaltzainen parte hartzeari buruz denetarik dagoela esan du, eta inor ezin dela behartu gogoz kontra Euskaltzaindian parte hartzera. Amaitzeko, Arautegia eguneratzeko, kode etikoa formulatzeko zein bestelako proposamenak bideratzeko, garai bateko Lege eta Ekonomia batzordea berrosatzea eta berrabiaraztea komeni dela iritzi dio.

Honenbestez, lehenengo atalari buruzko aurkezpenetarako, galderetarako eta iritzi-trukerako tartea amaitutzat eman da. Ondoren, euskaltzainek etena egin dute.

Etenaren ondoren, lantaldeek eta egitasmoez 2017-2021 aldirako proposatzen dituztenak aurkezteari ekin zaio. Hiztegi gintzarekin hasi da atal hau.

A. Sagarna Orotariko Euskal Hiztegiaren egitasmoaren zuzendariak azken bost urtean urtez urte eginikoa laburbildu du. Segidan, 2017-2021 aldirako *Orotariko Euskal Hiztegiaren* gehituko diren edukiak azaldu, eta azpiegitura informatikoa hobetzeari buruzko argibideak eman ditu. Ondoren, aurreko eskema berari segituz, Lexikoaren Behatokia egitasmoan 2013-2016 aldirako eginikoak eta 2017-2021 aldirako testu-hitz kopurua gehitzeko eta corpusa orekatzeko proposamenak azaldu ditu. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak egitasmoari buruz, berriz, aurreko aldirako eginikoak laburbildu eta 2017-2021 aldirako erredakzio eta zuzenketari buruz egingo direnak aipatu ditu, bai eta Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak batzorde ahaldunduari buruzko azalpenak eman ere. Gai honekin amaitzeko, gutxienez urtean behin Interneteko kontsultak gehitzeko eta bilaketa aurreratuan Euskaltzaindiaren gainerako baliabideak integratzeko asmoaz jardun du, IKT zerbitzuarekin elkarlanean.

Hiztegi gintza eremuarekin jarraituz, Miriam Urkia Hiztegi Batuko lantaldeko burua batzar-aretoa sartu da. Honek, *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren*, datozen bost urtean, 10.000 forma berri aztertzeko eta *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* integratzeko asmoaz argibideak eman ditu. Horretarako, hilean aztertuko diren sarrera kopurua, iturriak eta baliatuko den prozedura aletu ditu. Era berean, Euskaltzaindikoko beste

lantalde eta egitasmoetatik atera daitekeen lexikoa *Euskaltzaindiaren Hiztegiarekin* bat datorren aztertzen jarraitzea eta koordinazio ardura lantalde honek hartzea proposatu du.

X. Kintana Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko lantaldearen arduradunak 2017-2021 aldian egingo direnak azaldu ditu. Azalpenak bi habe izan ditu. Batetik, Lurraren Zientzien Oinarrizko Lexikoari buruzko lanak. Bestetik, Biziaren Zientzien Oinarrizko Lexikoarekin lotura dutenak. Bakoitzean urtez urte egingo direnak, metodologia eta epeak jaso dira.

Hiztegegintza atalarekin amaitzeko, J. Lakarra *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoaren zuzendariak* eta Julen Manterola egitasmo honetako teknikariak hitza hartu dute. Aurkezpenak bi zati izan ditu, orain arte egin denari buruzko azalpena eta aurrera begira egin nahi dena. Era berean, J. Lakarrak eta J. Manterolak 2017. urtean argitaratzeko bidean dagoen EHHEn behin-behineko bertsioa erakutsi dute Osoko bilkuran.

Bigarren ataleko txostenak aurkeztu ondoren, galderetarako eta iritzietarako tartea ireki da.

P. Zabaletak EHHEn argitalpenak 200 familia-hitz jasoko dituzenez gero, argitaratzeak merezi ote duen galdetu du. Izan ere, bere iritziz, beste hizkuntza batzuetako hiztegi etimologikoek familia gehiago hartzen dituzte. J. Lakarrak argitu du hizkuntzen arteko alderaketak egitea ez dela komenigarria, hizkuntza bakoitzak ardatz harturiko familia-hitzen atzealdean dagoen hitz kopurua desberdina delako. Ondorioz, gerta liteke familia-hitz gehiago kontuan izatea, baina atzealdean jasotako hitz kopurua txikiagoa izatea. Era berean, etorkizunean egitasmoa bizkortu beharraz eta baliabide gehiago esleitu beharraz ere jardun du J. Lakarrak.

E. Osa idazkariordeak aditzera eman du Zuzendaritzak diru-laguntza lortu duela EHHEn argitalpena 2017. urtean bideratzeko.

X. Videgainek bi galdera hauek egin ditu: bata, egitasmoaren buruak argitalpena ingelesera itzultzeko adierazitako asmoaz eta, bestea, argitaratzeko bidean dagoen lanean jasotzen diren zenbait aipamen (artikuluak, argitalpenak eta abar) eskuratzeke moduz. J. Lakarrak argitu duenez, *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoaren* oinarrizko bertsio honen ingelesezko itzulpenarekin kontuz ibili behar da, ezin baita modu automatikoan egin, itzultzaileak/moldatzaileak gaia ezagutu behar duelako eta hizkuntza bakoitzaren mekanismoak desberdinak direlako.

A. Sagarna, idatzizko corpusak ez ezik, ahozkoak ere jasotzeari buruz aritu da. Honi buruz, horrelako corpusak jasotzea eta prozesatzea zaila (nola markatu, etiketatu eta abar), eta garestia dela, eta egin ahal izateko, baliabide ugari behar dela azpimarratu du. M. L. Oñederrak Ahoskera batzordeak kezka hori ere baduela eta teknikariek irtenbide batzuk eman dituztela aditzera eman du.

A. Arkotxak galdetu du EHHEn frantsesezko bertsioa aurreikusi gabe dagoela eta horri buruz egitasmoan gogoetarik egin ote den. J. Lakarrak erantzun du frantsesezko bertsioa aurreikusi gabe dagoela, baliabide urritasunagatik lehentasunak finkatu behar direla eta galdera horri eman beharreko erantzun egokiaz ez duela hausnartu.

Honenbestez, Hiztegitzarekin loturiko atala bukatutzat eman da. Ondoren etena egin da.

Arratsaldeko 15:30ean bilkurari segida eman zaio.

Aztergaiekin segituz, Gramatika batzordearen txanda iritsi da. Aurkezpena egin behar duen M. Azkarate Gramatika batzordeko kideak, luzatu diren beste konpromiso batzuk tarteko, hurreratzeko arazoak izan dituzenez, gaia 31n lantzeko laga da. Ondorioz, atal honen bukaeran, aurreikusitako tartean, Sustapen batzordearen aldirako helburuak eta zereginak aurkeztea erabaki da.

A. Arejitak *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren 2017-2021* aldirako zereginak azaldu ditu. Urtez urte jaso dira urte bakoitzean egin nahi direnak lau ataletan banatuta: argitalpena, produkzioa, informatika-aplikazioa eta, egitasmoa gizarteratzeko asmoz, Euskara Ibiltariari buruzko xehetasunak.

Ondoren, hitza M. L. Oñederra Ahoskera batzordearen buruak hartu du. Honek, aldirako bi aro azaldu ditu. Batetik, EBAZen eta "Ahoskerak axola du" txostenean ahoskera lantegien abiapuntu metodologikoak eta teorikoak ezarririk, abiapuntu horiek hizkuntza lan-tresna duten profesionalen (maisu-maistrak, irrati eta telebista esatariak eta antzerki mundua) artean zabaltzea eta eztabaidatzea oinarritzat hartzen duena. Bestetik, lantegi horien azken helburua EBAZen didaktikarako metodologia proposamen bat egituratzea xedetzat hartzea. Horiek horrela, 2017.

urtean, ahoskerari buruzko mintegien eta ikastaroen nolakotasuna eta baldintzak landu, irakasle taldeekin lehen mintegiak antolatu, antzezleekin lehen harremanak eduki eta egitasmoa abiatuko dela esan du.

Galderetarako eta erantzunetarako tartean, hitza X. Videgainek hartu du. Xarlesek, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* antologia on bat prestatzea eta, nazioartean ezagutzera emateko asmoz, ingelesez argitalpen bat paratzea ona litzatekeela esan du.

S. Aleman Sustapen batzordearen buruak 2017-2021 aldirako batzordeak aurreikusi dituenak azaldu ditu. Egitasmoan jaso dira eguneratu nahi diren argitalpenak (esate baterako, Euskaltzaindiaren adierazpenak), euskararen lurraldeetan antolatu nahi diren jardunaldiak zein bestelakoak.

Onomastikaren atalean, hitza hartu du P. Salaberri Onomastika batzordearen buruak eta Onomastikarekin lotura duten egitasmoetako zuzendariak. Hasteko, Onomastika batzordeak ondoko urteetarako dituen helburuak azaldu ditu. Hiru atal hartu ditu kontuan: hirietako eta herrietako kale izendegiak lantzea eta arautzea; Onomastika hiztegia abiaraztea; aurreikusi gabe iristen diren lanei erantzutea (elkartetetatik eta erakundeetatik iristen diren galderei erantzun, hamai-ka herri izenen gaineko txostenak prestatu, hala eskatzen duten herrietako etxeen izenak jaso eta arautu eta abar).

Patxi Galé Euskal Corpus Onomastikoa egitasmoaren teknikaria batzar-aretoa sartu eta egitasmo honetan aldirako aurreikusi diren lanak azaldu ditu. Hasteko, ECO egitasmoan orain arte egin diren lanen nondik norakoak, bai eta egitasmo honetako datu-baseari buruzko argibideak eman ditu. Ondoren, datozen urteetan datu-basea aberasten segitzeko, 2017-2021 epean ECOk aztertu eta barruratuko dituen lanen aurreikuspena azaldu du. Aurreikusitakoetatik bereiz, bestelako lanak ere barruratu ohi direla, baina horiek guztiak Onomastika batzordeak urteko planetan zehaztu edo errendapenetan agertzen direla aditzera eman du.

Ondoren, Gasteizko Toponimia egitasmoari buruz azalpenak emateko, Elena Martinez de Madina egitasmoaren teknikaria batzar-aretoa sartu da. Bere azalpean, egitasmoaren helburua eta orain arte egindakoaren berri eman du. Halaber, egitasmoa erabat amaitzeko eginkizun dagoenari eta begiz jotako kronogramari buruz argibideak eman ditu.

Galderetarako eta erantzunetarako tartean, A. Sagarnak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren webgunea aipatuz, toponimoak geolokalizatzeko Gipuzkoako iturriei buruz galdetu dio P. Galé ECOren teknikariari. Honek, webgune eta gisakoetan aipatzen direnak jasotzekotan, iturri dokumental gisa hartuko liratekeela azpimarratu du.

Euskaltzainburuak ECO egitasmoaren barruan landuriko datu-basea osorik edo zati bat ondoko urteetan gizarteratu beharraz aritu da. Beste horrenbeste esan du Gasteizko Toponimia egitasmoaren barruan gorpuzten ari den datu-baseari buruz. Material hori erabiltzaileen edota interesatuen eskura jarri ahal izateko, gogoeta egitea garrantzitsua dela eta Zuzendaritzak, aldirako aurreikusitakoen artean, Euskaltzaindiak egiten diharduenari ikusgarritasuna ematea lehenetsi duela gogorazi du.

X. Videgainek ECO gizarteratzea beharrezkoa dela ikusten du, nahiz arazoak egon daitezkeen, datu-basean ageri diren toponimo guztiak ez baitaude normalizaturik -eta ez dira zertan egon behar-, eta nahasteak sor baitaitezke. P. Salaberrik datu-baseen zati bat Euskaltzaindiarena ez dela eta, gizarteratu ahal izateko, baime-nak lortu behar direla nabarmendu du.

Ondoren, Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria batzar-areto-ra sartu eta batzordearen aldirako zereginak azaldu ditu. 2013-2016 aldiko lanei buruzko azalpenean, Exonomastika batzordeak sustatuta Euskaltzaindiak emaniko arauetara eta argitaratzeko bidean daudenei buruz azalpenak eman ditu. Ondoren, 2017. eta 2018. urteetarako batzordeak begiz jo dituen zereginak laburbildu ditu. 2018. urteko zereginak amaitzean, aurrera begira bestelako aurreikuspenik egin behar dela azaldu du.

Euskaltzainburuak galdetu du ea Exonomastika batzordeak azken urteetan eginitako lanak islarik izan ote duen. A. Mujikak erantzun du esanez hedabideetan, ikasmaterialetan eta abarretan ari direnen aldetik bazegoela eskari bat eta Exonomastika batzordea hutsune hori betetzen saiatu dela. Ondorioz, Exonomastika batzordearen lanak hizkuntzaren egunerokotasunean isla izan duela iritzi dio. Nolanahi ere, azken urteetan egin den lan handia kontuan hartuz, eginkizun zegoena hein handi batean bideratu dela eta aurrerantzean egitekoak urriak direla iritzi dio. Honek bestelako zereginetan aritzeko (adibidez, orain arte egin dena gizarteratzen) aukerak eman ditzakeela nabarmendu du.

Literatura batzordearen aldirako lanak aurkezteko unea iritsi denean, batzordea-

ren ordezkariarik egon ez denez, txostena aurkeztutakoen artean uztea erabaki da Osoko bilkuran. Ondoren, J. Kaltzakortak hitza hartu eta Herri Literatura batzordeak 2017-2021 urteetarako aurreikusitakoak azaldu ditu.

J. B. "Battittu" Coyosek A. Xahoren kantutegia berriz argitaratuz gero, ekarpen berririk uzten ote duen galdetu du. J. Kaltzakortak erantzun du esanez, A. Xahoren kantutegia argitaratu dena baino zabalagoa dela. Era berean, halako lanak argitaratzen direnean, jatorrizko testua ondo jasotzea eta fidela izatea behar-beharrezkoak direla nabarmendu du.

X. Videgainek, **Xalbadorren Eguna** dela eta, familia kontuan hartzea komeni dela adierazi du. Era berean, J. Kaltzakortaren tesia Euskaltzaindiak argitara ematea edota kontsulta-gai jartzea komeni dela azpimarratu du. Amaitzeko, Herri Literatura batzorderako Ipar Euskal Herritik bi pertsona proposatu zituela, baina batzarretara deituak ez direla izan aditzera eman du.

A. Arejitak J. Kaltzakortaren tesia argitaratzeko urratsak egiten ari direla eta Euskaltzaindiak parte hartzeko parada izango duela jakinarazi du. Atal honekin bukatzeko, J. Lakarra tradiziozko testuak gorde eta zaindu beharraz aritu da, duten garrantziagatik.

Galderetarako eta iritzietarako tartearen ostean, XX. Barne Jardunaldietako martxoaren 30eko lan-jarduna bukatutzat eman da, arratsaldeko 18:30ean.

Martxoaren 31n, ostiralean, goizeko 10:00etan, berriro ekin zaie XX. Barne Jardunaldiei. Gauzak horrela, Gramatika batzordearen aldirako helburuak eta zereginak aurkezteko hitza hartu du M. Azkaratek. Honek, Gramatika batzordearen zeregin nagusia euskal gramatika lantzea dela esan du. Honi dagokionez, Euskararen Gramatika egitasmoa gauzatzeko, 2017-2021 aldian egingo diren lanak azaldu ditu.

S. Alemanek arau izaera izango ote den galdetu du. M. Azkaratek nabarmendu duenez, goizegi da arau izaera izango duen baieztatzeko. Izan ere, hasteko, oinarrizko testu bat prestatu behar da eta ondoren ikusi arau izaera ematea komeni ote den.

J.-B. "Battittu" Coyosek Euskararen Gramatika ala Euskaltzaindiaren Euskararen Gramatika izango den galdetu du. M. Azkaratek izena Euskaltzaindiak erabakiko duela esan du.

P. Zabaletak gramatika laburra 2021. urterako uztea beranduegi dela iritzi dio eta epeak aurreratzeko ahalegina egin dadin eskatu du. Era berean, testua argitara eman aurretik, Osoko bilkurara ekarriko den eta euskaltzain osoek ekarpenak, iruzkinak eta oharrak egiteko aukerarik izango ote duten galdetu du. M. Azkaratek gramatika laburraren kontuaz esandakoa kontuan hartuko dutela esan du, dezaketene neurrian. Halaber, Euskararen Gramatika Euskaltzaindiaren argitalpena izango denez gero, oinarritzko testua Osoko bilkurara ekarriko dela aditzera eman du, euskaltzain osoek ekarpenak egiteko modua izan dezaten.

Corpus batzordearen aldirako plana aurkezteko Paskual Rekalde batzordeko idazkaria batzar-aretora sartu da. Honek, batzordearen 2017-2021 aldirako egiteko nagusiak laburbildu ditu (Jagonet zerbitzuaz arduratzea, hizkuntzaren kalitateari buruzko gogoeta abiatzea, Hizkuntza Kalitatearen Behatokiak eskaturiko materiala prestatzea eta Corpus batzordearen esku lagatako irizpen-eskariei erantzutea).

Ondoren, P. Rekaldek Euskalkien lantaldearen aldirako helburuak azaldu ditu. Gogorarazi duenez, lantalde honen eginkizun nagusia da euskalkien ekarria aztertzen jarraitzea, Euskaltzaindiaren Hiztegia osatzeko asmoz. Ondorioz, xedea gauzatu ahal izateko proposatzen duten lan-plana aletu du.

M. Zalbide Euskararen Historia Soziala (EHS) egitasmoaren zuzendariak egitasmoaren helburuez eta orain arte eginikoez azalpenak eman ditu. Ondoren, 2013-2017 aldirako aurreikusitako lanei buruzko argibideak eman ditu. Txostenean abian diren ikersaioei, argitalpenei, jardunaldi zein aurkezpenei buruz azalpenak ematen dira. Era berean, beste zenbait lan, hala nola, Koldo Larrañagaren funtsak eta Juan Madariagaren *Sociedad y lengua vasca en los siglos XVII y XVIII* lana berrargitaratzeari buruz argibideak eman dira.

Galderetarako eta erantzunetarako tartean, S. Alemanek Jagonet hizpidetzat hartu eta zerbitzu berezitua antolatzeke aukerez galdetu dio P. Rekalderi. Honek orain arte egunean eguneko galderei erantzuten zaiela esan du. Halaber esan du norbanakoei erantzuteaz gainera, taldeei erantzutea ere garrantzitsua dela, haren efektu biderkatzailea dela-eta, eta, orobat, eragin luze-zabala izan dezaketene taldeak are hobeto artatzearen garrantziaz ohartarazi du.

Bestalde, S. Alemanek EHSk ekoitzi eta sustatutako zenbait lan (esate baterako, *Euskararen historia soziala lantzeko eredu metodologikoa*) irakurle arruntentzat paratzeko aukera baztertu ote den galdetu dio M. Zalbideri. Honek azaldu du beharrekoa dela lehenbizi lan nagusia argitaratzea, ondoren, zabalkundeari begira

garrantzizkoa izango den laburpena paratzeko. Izan ere, adierazi duenez, lan osoa burutu gabe laburpenak egiten hasiz gero, lanaren osotasuna galtzeko arriskua dago, beraz, komeni da halako lanak hurrenkera horretan burutzea.

M. Azkaratek galdetu du terminologiarekin zerikusia duten kontsultak Jagonet zerbitzura iristean Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia batzordera bideratzen diren. Era berean, Corpus batzordearen aldirako helburuak azaltzean, Euskara Batuaren Eskuliburuari (EBE) buruz ezer ez dela aipatu eta gai hori zertan den galdetu dio P. Rekalderi. Amaitzeko, Donostia 2016 egitasmoaren inguruabarean, EHS egitasmoaren eskutik antolaturiko jardunaldiek eta aurkezturiko lanek izan duten arrakasta azpimarratu eta eskertu ditu. Era berean, irakurle arruntei zuzenduriko lanak aipatuz, M. Zalbideren iritziarekin bat etorri da. Testuinguru horretan kokatu du Euskararen Gramatika paratu ondoren Gramatika Laburra prestatzearen garrantzia.

P. Rekaldek Jagonet zerbitzura iristen diren kontsultak, dagokion batzordearen, lantaldearen, egitasmoaren esku jartzen direla aipatu du, baldin lehenago erantzunik izan ez badute, zenbaitetan oso antzekoak -berberak ez esatearren- diren galderak iristen direlako. Terminologiari buruz, halakoak iristen badira eta erantzunik ez badago, Terminologia batzordera -UZEIren bidez- bideratzen direla aditzera eman du. EBE dela eta, gaia zertan den argibideak Gramatika batzordeari idatziz bere garaian eman zitzaizkiola adierazi du.

A. Arejitak Estilo Liburua edo gisako bat prestatzearen garrantzia azpimarratu du. Izan ere, batzuetan galderak oso arruntak eta ohikoak dira, beraz, erabiltzaileentzat erabilerraza izango den zerbait prestatzea garrantzitsua bilaka daiteke. Era berean, Jagonet zerbitzuaren jarrera proaktiboa aldarrikatu du, zain egonez baino, iradokizunak eta jarraibideak proposatuz. P. Rekaldek erantzun dio proposamena ondo dagoela, baina bitartekoak ere esleitu behar direla, iritsi ezinean dabilzalako.

Honenbestez, atal honen galderetarako eta iritzi-trukerako tartea amaitutzat eman da. Ondoren, euskaltzainek etena egin dute.

Etenaren ondoren, XX. Barne Jardunaldien azken atala jorratu da, Barne erregelei buruzkoa, hain zuzen.

E. Osak, otsaileko Osoko bilkuran erabakitakoaren ildotik, martxoaren 13an, Idazkaritzara, bi idatzi iritsi direla aditzera eman du. Batetik, M. Azkaratek 2013. urteko Barne Jardunaldietan, Zuzendaritzaren osaerari buruz (13. artikulua) aurkeztu zuena berriz aurkeztuz. Bestetik, P. Goenagak idatzi bat aurkeztu du eskatuz Barne erregelak euskaltzain oso guztien artean banatzea eta ekarpenak egiteko aldia luzatzea.

Eskari honi buruz, otsaileko Osoko bilkuran euskaltzainek erabakitako prozedura gogora ekarri da. Era berean, azken lau urteotan Barne erregelak euskaltzain guztien eskura egon direla eta Osoko bilkura batzuetako eztabaidetan aipatuak izan direla azpimarratu da.

Zuzendaritzaren aldetik, otsaileko Osoko bilkuran erabakitakoa aurrera eramateko asmoz, euskaltzainek Barne erregelei aurkezturiko ohar zehatzak banatu dira. Aldi berean, horien testuingurua are hobeto ulertzeko, Barne erregelaren kopia, paperean, euskaltzain guztien eskura jarri eta eskatu ahala, euskarri elektronikoa igortzeko aukera ere eman da. Horren ondoren, euskaltzainek egin dituzten ohar zehatz horiei buruz iruzkinak, oharrak zein bestelakoak egin ahal izateko epea finkatu da, euskaltzain oso guztientzat. Epea maiatzaren 2an amaituko da. Gero, maiatzaren 26ko Osoko bilkuran eztabaidatuko dira.

Ondoren, 13. artikuluari buruz egin duen ekarpena azaltzeko hitza hartu du M. Azkaratek. Honek nabarmendu du gaia ezaguna dela, jada 2013. urteko Barne Jardunaldietan aurkeztu zuela eta egiten duen proposamena Arautegiak jasotakoarekin kontraesanean ez dagoela, eta, beraz, Barne erregeletako 13.3 puntuarekin bateragarria dela. Funtsean, Zuzendaritza hautatzeko deitzen den Barrengo bilkuraren aurretik, hautagaiak nortzuk diren eta zein egitasmo aurkezten duten jakitea proposatzen du.

A. Urrutiak Zuzendaritzak prestatuturiko “Barne-erregelak eguneratzea. Aldaketa-proposamenak” txostena aurkeztu du. Proposamen bakoitzean, egun indarrean dagoen testua, testu berria eta azalpenak ageri dira. Funtsean, 2013. urtetik hona egin diren zenbait aldaketa (adibidez, Ikerketarako Estatutua eta abar) Barne erregeletan txertatzea da xedea. Berrikuntza nagusi gisa, 125. artikulua aipatu du, Euskaltzaindiak, bere helburuak aurrera eramateko, erakunde edo elkarte atxikiak sor

edo izan ditzakeela dioena. Entitate hauek beregainak izango dira eta Euskaltzaindiaren babespean antolatuta ahal izango dira.

Aurkezpenaren ondoren, M. Azkaratek erakunde atxikien kontuaz galdetu du, ea hori UZEI, unibertsitate, ikerketa zentro eta gisakoei begira proposatzen ote den. A. Urrutiak baietz erantzun dio. Nolanahi ere, erakunde atxiki baten sorrera, eraldaketa edota ezabaketa Osoko bilkurak onetsi beharko duela esan du, Zuzendaritzak proposatu ondoren.

P. Zabaletak, Azkue Biblioteka eta Artxiboaz, J. M. Torrealdaik aurkeztu eta XIX. Barne Jardunaldietan onarturiko plangintza indarrean dagoen galdetu du. Euskaltzainburuak erantzun dio Barne Jardunaldi hauetan ez dela zerbitzuei buruz gogoetarik egin. Era berean, zerbitzu honen zein bestelakoen gainean gogoeta egitea garrantzi handikoa dela eta hala egingo dela esan du, orain arte egin den bezala, Osoko bilkuran eta Zuzendaritzan.

Horren ondoren, Zuzendaritzak aurkeztu duen “Barne-erregelak eguneratzea. Aldaketa-proposamenak” txostenari zein Barne jardunaldietan aurkeztu diren gainerako txosten guztiei euskaltzainek iruzkinak, oharrak zein bestelako proposamenak egin ahal izateko epea ireki da. Epea maiatzaren 2an bukatuko da. Ondoren, maiatzaren 26ko Osoko bilkuran eztabaidatuko dira.

Eta beste aztergaiarik ez dela, 2017ko martxoaren 31n, 12:45 direnean, XX. Barne Jardunaldiak bukatutzat eman dira.

Euskaltzainburua,
Andres Urrutia

Idazkaria,
Xabier Kintana